

# Marmari

14. zenbakia / 2006ko abendua

Leizako  
aldizkaria

- UEMA
- Izen abizenak
- Etorkinak eta euskara
- Hoadrilen gora-beherak.
- Denborapasak
- Ezetz asmatu...



**Zaharrak, gazteak,  
haurrak, kanpokoak...**  
guztiok euskaraz bizi gaitezten



# ale honetan:



3. or. Aurkezpena.

4. or. Izen-abizenak.

5-10. or. UEMA.

9-11. or. Euskarazko zerbitzuak.

12-13. or. Koadrilen gorabeherak.

14-15. or. Institutoko idazkiak.

16-20. or. Immigrazioa eta euskara.

21. or. Ezetz asmatu eta pertsonai ezkutua.

22-25. or. Bai Euskarari egitasmoa.

26-27. or. Denborapasak eta Eroskopa.

• Argitaratzailea: MARMARI  
• Argazkiak: Aurrera elkarte eta Euskara Zerbitzua

• Diseinua: Allende Arnaiz

• Maketazioa: Igor Astigarraga





# Hamalau garrena ere kalean da

**B**erriz ere Gabonak hemen ditugu, eta gabonekin batera Marmariren 14. zenbakia goxo-goxo, imprimategitik atera berria.

14. zenbaki honetan gai asko ditugu. Oraingoan ere Amazabal institutuko ikasle batzuk parte hartu dute, ederki parte hartu ere. Leitzarren ekarpenak asko estimatzen ditugu Marmarin. Oraingoan institutuko ikasleek koadrilen gorabeheri buruzko idatzi interesgarri bat egin dute. Nork ez du izan noizbait gorabeherik koadrilako norbaitekin? Lehengoan Bullynari buruz idatzi zuten. Telebistan nahiz irratian azkenaldi honetan gai horie buruzko berri asko entzuten ditugu, eta ez dira batere onak izaten. Bestalde, interneti buruz ere idatzi dute. Gazteak eta interneta, hori bai une-uneko berria. Gaur egun bizi garen munduaren gaineko hasunarketa ere egin dute institutuko gazteek: Matrixen bizi al gara?

Zenbaki honetan betiko moduan euskararen gaia jorratu dugu, euskara baita

gure identitatearen oinarria, gure izaera baldintzatzen duena. Batetik, UEMA ezagutarazi nahi dizuegu eta bestetik, harrek herritarrei ematen dien zerbitzua ezagutzera eman erabili dezazuen. UEMA, Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea da. Gipuzkoako, Bizkaiko, Nafarroako, Lapurdiko eta Arabako herriak daude bertan. Leitza 2000an sartu zen eta baita Goizueta ere. UEMA batik bat merkataritza eta administrazio mailan lan egin du azken urteotan Leitza.

UEMArekin batera, elkarlanean, gure eskualdean euskararen normalizazioa lortzearren lan egiten ari den erakundea Kontseilua da. BAI EUSKARARI egitasmoa orain dela 3 urte jarri zen abian Leitza aldean, eta urtetik urtera aurrera-pausak ematen ari gara. Berriki sinatu da Kontseilua eta Euskara Mankomunitatearen arteko hitzarmen berria. Leitza aldean euskarak bizia du.

Zenbaki honetako beste gai garrantzi-

tsu bat etorkinena da, boga-bogan dagoen gaia. XX. mendean Euskal Herrira etorritako etorkin kopurua handiak nabarmen eraldatu zuen bertako egitura sozial, politiko eta kulturala. Oraindik ere ematen den aurreko immigrazio horri gehitu behar zaio 80ko hamarkadatik aurrera Europa barrutik eta kanpotik etorritakoa. Hala ere, ez dugu ahaztu behar oraindik ere etorkin kopuru handiena Esapiniako eta Frantziako estatutik datorrela, hala ez badirudi ere. Etorkin horiek geureganatu egin behar ditugu euskara ikasi eta euskaraz bizi daitezen, baina horretarako, heuren baldintza sozialak eta ekonomikoak onak izan behar dira eta gure aldetik ere esfortzua egin behar dugu.

Goza ezazue Marmari irakurtzen. Anima zaitezte eta parte hartu, ziur aski Leitzaiko gauza intersegarrien berri izango duzue, txutxumutxuren bat...Horrela, agian Olentzerok opari gehiago ekarriko dizkizute.

# IZEN-ABIZENAK EUSKARATZEA ERRAZA ETA LABURRA DA. ORAIN DUZU HORI ALDATZEKO AUKERA

**E**uskal izen-abizenak badituzu, baina agiri ofizialetan erdal grafian agertzen baldin badira, **ORAIN** duzu hori aldatzeko aukera. Gaur egun egin beharrekoak oso errazak dira, eta denbora motzean egin daitezke erroldatuta zauden herriko Erregistro Zibilean Udaletxean bertan.

## IZENA EDO ABIZENA EUSKARATZEKO ETA ALDATZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

1. Eskatzailearen erroldatze agiria (Erroldatuta zauden herriko udaletxean eskatu).
2. Eskatzailearen hitzez-hitzeko jaiotze agiria (herriko udalean edo Iruñeko Erregistro Zibilean eska dezakezu).
3. Nortasun agiriaren fotokopia etoriginala.



## OHARRA:

- Aurreko dokumentuak 18 urtez gorakoentzat dira.
- Adingabeak abizena aldatzeko derrigorrezkoa da gurasoekin bertaratzea eta famili -liburua aurkeztea.
- Amak edo aitak abizena euskaratuz gero, adingabeko seme-alabena automatikoki aldatzen da.
- Izena edo abizena aldatu nahi baduzu Iruñeko Erregistro Zibilera jo beharko duzu eta eskaera egin.

## KONTSTULTARAKO TELEFONOAK:

Leitzako Bake Epaitegia: 948 610 866 (Astelehenetik ostiralera 10:00-14:00, asteakenetan ez daude).  
Iruñeko Erregistro Zibila: 84 84 24 008  
Gainerako herrietan erroldatuta zaudeten udaletxera joan ohiko ordutegian.  
Euskara Zerbitzua: 948 510 814

## ZURE IZEN-ABIZENAK EUSKALDUNDU:

Zure euskal abizenak euskal grafiara zuzendu nahi baduzu:

- Cestau >> Zestau
- Sagastibelza >> Sagastibeltza
- Alduncín >> Alduntzin

Zure izena zuzendu edo euskaratu nahi baduzu:

- María >> Miren
- Iciar >> Itziar



# UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

**G**une euskaldunetan euskararen erabilera arlo sozial guztietara zabaltzea eta udal euskaldun guztiakin euskara nagusi izango den lur-gunea antolatzeke asmoz, jarri zen martxan 1991n Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea.

Mankomunitate honen eginkizuna garrantzi handikoa da euskararen normalizazio prozesuan. Euskarak, biziko bada, berez nagusi den lur-gunea behar du, eta hori nolabait gauzatuko litza-teke udalerrri euskaldunak batuko balira. Horrek euskararen hiz-

kuntza komunitate osoari egiten dio mesede. Egun, Euskal Herrian egoera minorizatuan badago ere, udalerrri euskaldunetan euskara da nagusi eguneroko harreman arruntetan behintzat.

Udalerrri euskaldunetan 200.000tik gora euskaldun bizi



da eta hizkuntza planifikazio aurrerakoia egin daiteke udal euskaldunetan, normalizazio bidea erdaldunetan baino errazago delako. Izan ere, udal euskaldunetako berezko euskal sareak (familia, lagunartea, eskola, administrazioa, gizarte-zerbitzuak, lan munda...) erraztu eta ahalbideratu egiten baitute euskararen erabilera.

### UEMAko herriak: Ezaugarriak.

Gaur egun, hego Euskal Herriko lau herrialdeetako 51 udalerrri biltzen ditu mankomunitateak. Baina ipar Euskal Herriko Konfederazioarekin ahalbideratutako lanari esker, hango hainbat eta hainbat udalerrri ere, batik bat Herriko etxetan euskararen erabilera normalizatzeko urratsak ematen ari dira.

UEMAk biltzen dituen herriak ezberdinak dira ezaugarri batzuei dagokienez. Batzuk oso txikiak, beste batzuk handiagoak, batzuk euskara zerbitzuarekin, beste batzuk zerbitzu hori gabe... Baina finean, denek dituzte ezaugarri komun batzuk ere. Jarraian, gaur egun UEMA osatzen duten udalerrien ezaugarrien taula ikus daiteke:

HERRIA	BIZTALEAK	EUSKALDUN KOPURUA	EUSKARA ZERBITZUA	BARNE PLANA	PLAN OROKORRA	HERRIA
Aizarnazabal	532	%98,07	Ez	2000	Ez	Aizarnazabal
Altzaga	133	%97,83	Ez	2000	Ez	Altzaga
Arama	166	%93,55	Ez	2003	Ez	Arama
Antzuola	1.911	%79,07	ET bat (egun erdiz)	2003	Ez	Antzuola
Beizama	157	%100	Ez	2000	Ez	Beizama
Ezkio-Itsaso	537	%94,63	Ez	2001	Ez	Ezkio-Itsaso
Gaintza	136	%98,50	Ez	2001	Ez	Gaintza
Getaria	2.504	%95,83	ET bat	2003	EBPN	Getaria
Itsasondo	564	%86,99	Ez	2000	Beste bat	Itsasondo
Orio	4.510	%87,59	ET bat	2003	EBPN	Orio
Usurbil	5.324	%76,1	ET bat eta itzultzailea	2000	EBPN	Usurbil
Zaldibia	1.518	%90,84	Ez	2001	Ez	Zaldibia
Zestoa	3.101	%90	ET bat	2000	EBPN	Zestoa
OREXA	82	%98,08	EZ	2000	TEPE	OREXA
BALIARRAIN	97	%99,49	EZ	2000	TEPE	BALIARRAIN
ORENDAIN	154	%99,35	EZ	2000	TEPE	ORENDAIN
ELDUAIN	215	%98,91	EZ	2000	TEPE	ELDUAIN
BELAUNTZA	296	%92,02	EZ	2001	TEPE	BELAUNTZA
ALTZO	320	%96,40	EZ	2000	TEPE	ALTZO
ADUNA	336	%93,79	EZ	2001	TEPE	ADUNA
LEABURU-TXARAMA	373	%94,27	EZ	2000	TEPE	LEABURU-TXARAMA
IKAZTEGIETA	386	%92,08	EZ	2000	TEPE	IKAZTEGIETA
LIZARTZA	584	%98,48	EZ	2000	TEPE	LIZARTZA
IRURA	955	%84,13	Teknikari bat 2/5	2001	TEPE	IRURA
ANOETA	1.778	%78,56	Teknikari bat 3/5	2001	TEPE	ANOETA
OIARTZUN	9.549	%82,44	Teknikari bat	2001	EBPN	OIARTZUN
AJANGIZ	434	%93,66	Ez	2001	Ez	AJANGIZ
AMOROTO	376	%94,55	Ez	2001	Ez	AMOROTO
ARAMAIO	1.466	%87,21	Teknikari bat	2002	EBPN	ARAMAIO
ARRATZU	368	%95,79	Ez	2001/2002	Ez	ARRATZU
ARTEA	644	%87,11	Ez	2000	Ez	ARTEA
AULESTI	649	%95,15	Ez	2001	Ez	AULESTI
BERMEO	16.938	%81,39	4 Teknikari	2001	EBPN	BERMEO
BERRIATUA	987	%92,91	Ez	2004	Ez	BERRIATUA
DIMA	1.052	%90,35	Ez	2000	Ez	DIMA
ETXEBARRIA	796	%94,74	Ez	2001	Ez	ETXEBARRIA
GATIKA	1.295	%82,08	Ez	2000	Ez	GATIKA
GIZABURUAGA	144	%94,79	Ez	2001	Ez	GIZABURUAGA
MENDEXA	341	%91,50	Ez	2000	Ez	MENDEXA
MUNITIBAR	390	%95,26	Ez	2001	Ez	MUNITIBAR
MUTRIKU	4.775	%88,48	Teknikari bat	2000	Ez	MUTRIKU
MUXIKA	1.320	%93,83	Ez	2004	Ez	MUXIKA
ONDARROA	9.732	%86,18	Teknikari bat	2001	EBPN	ONDARROA
ZEANURI	1.143	%90,24	Ez	2000	Ez	ZEANURI
ARANTZA	675	%99,2	Mankomunitateko ET	2000		ARANTZA
ARBIZU	925	%93,41	Mankomunitateko ET	2001		ARBIZU
ETXARRI-ARANATZ	2.392	%85,67	Mankomunitateko ET	2001		ETXARRI-ARANATZ
GOIZUETA	851	%97,04	Mankomunitateko ET	2000		GOIZUETA
LEITZA	2.935	%92,15	Mankomunitateko ET	2000		LEITZA
URDIAIN	675	%88,65	Mankomunitateko ET	2001		URDIAIN
ZUBIETA	297	%99	Mankomunitateko ET	2000		ZUBIETA



Izena eta abizenak: **KORTXOLIS**  
Mikel Goienetxea  
Bazkide zenbakia: **ELKARTE**  
7637 **GASTRONOMIKOA**



Data: 2006/07/01

Azalpena	Prezioa	Kop	GUZTIRA
<b>Edariak:</b>	0,75	3	2,25
<input checked="" type="checkbox"/> Freskagarria	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> Ardo beltza	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> Ardo gorria	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> Ardo zuria	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> Txikito arrunta	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> Txikito bereziak	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> Sagardoa	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> Sagardo botila	0,30	4	1,20
<input checked="" type="checkbox"/> Mostoa	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> Vermuta	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> Marianittoa	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> Garagardo botila	0,60	2	1,20
<input checked="" type="checkbox"/> Garagardo kaña	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> Zumoa	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> Txakolina	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> Katxia	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> Konbinatuak	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> Kafeak	1,50	1	1,50
<input checked="" type="checkbox"/> Patxarana	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> Anisa	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> .....	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> .....	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> .....	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> .....	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> .....	.....	.....	.....
<b>Janariak:</b>	2,60	2	5,20
<input type="checkbox"/> Azeitunak	.....	.....	.....
<input checked="" type="checkbox"/> Gazta	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> Txorizoa	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> .....	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> .....	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> .....	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> .....	.....	.....	.....
<input type="checkbox"/> .....	.....	.....	.....
<b>GUZTIRA</b>			<b>11,35 €</b>

Esan bezala, ezaugarri batzuk ezberdinak izan arren, herri guztiek badute oso antzekoa den ezaugarri bat: euskaldun kopurua. UEMAn biltzen diren herriak udalerrri euskaldunak dira, hango biztanleen %75etik gora euskalduna izanik. Gainera, herri txiki gehienak, normalean euskaldun indizerik handienak dituztenak, euskararen erabateko normalizazioan aritzeko teknikaririk gabeak dira. Ondorioz, bide horretan eman dituzten urrats gehientsuenak UEMatik bultzatutakoak izan dira.

UEMA osatzen duten udalerrriak Euskal Herriko gune euskaldune-

nak dira. Udalerrri euskaldunen eginkizuna garrantzi handikoa da euskarak bizirik jarrai dezan. Udalerrri euskaldunen etan euskara da nagusi, eguneko harreman arruntetan, behintzat. Izan ere, udal euskaldunetan berezko euskal sareek (familia, lagunartea, eskola, administrazioa, gizarte-zerbitzuak...) erraztu egiten baitute euskararen erabilera. Gune hauetan, euskara, eragin arrotzik gabe, jator mantentzen da.

### UEMAren jardunak eta kanpainak

- **UEMAko teknikarien foroa.** Herri horietan euskararen normalizazioan ari garen teknikariok, baditugu hainbat eta hainbat kezka

bateragarri. Finean, antzeko gauzek kezkatzen gaituzte denok, eta kezka horien irtenbideak ere, askotan, komunak dira. Horregatik sortu da foroa; elkar laguntzeko, informazioa trukatzeko eta egitasmo zabalak garatzeko.

- **Kultur Elejira** UEMAn dauden udalendako zirkuitu kulturala da. UEMAk udalei kultur ekitaldiak antolatzeko diru laguntza ematen die.

- **SMS lehiaketa.** Betidanik izan da UEMAn helburuetako bat euskararen etorkizuna diren gazteen arloari ere heltzea. Bide horretatik, gazteen hizkuntza ohituretan, kalitatean... urratsak eman nahian,


# Euskal Herriko II.SMS lehiaketa

[www.smsariketa.org](http://www.smsariketa.org)



ortzalea

gaia:  
esaiozu  
ezetz



informala



lehiaketa

Parte hartzeko

[www.smsariketa.org](http://www.smsariketa.org)  
edo bidali sms bat  
5649 zenbakira  
uema.sms2.(mezua)



Ekainaren

1etik  
30era

Antolatzailea





Leizako Udala  
948.510.009

Leizako Udala



Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea  
943.260.372

## HARATEGIETARAKO HIZTEGIA

BUEY .....	IDIA
CABALLO .....	ZALDIA
CABRITO .....	ANTXUMEA/AHUMEA
CAPÓN .....	KAPOIA
CERDO .....	TXARRIA
COCHINILLO .....	TXARRIKUMEA
CODORNÍZ .....	GALEPERRA
CONEJO .....	KONEJOA/UNTZIA
CORDERO .....	BILDOTSA/ARKUMEA
FAISÁN .....	FAISANA/FAISAIA
GALLINA .....	OILOA
JABALÍ .....	BASUR
OVEJA .....	ARDIA
PALOMA .....	USOA
PATO .....	PAITA
PAVO .....	INDIA
PERDÍZ .....	EPER
POLLO .....	OILA
SORDA .....	OILA
TERNERA .....	TXA
TORTOLA .....	USA
VACA .....	BEH



### OKELA/HAR

AGUJA .....	AG
BRAZUELO/PALETILLA .....	PA
CONTRA .....	KONT
COSTILLA .....	SATUTS
CHULETA (de cabezada) .....	LAGAT
FALDA .....	
FILETE .....	

GIBELA
MIHINA/MIHIA
RIPOTXAK
OLLEJA/HAZIKONTXOA
UZTURRA

Bihar goizean  
itxita egongo da  
Barkatu eragozpenak

STOP

Kizkurrak  
kizkur  
3 pauso  
errazetan



Arrandegi honetan,  
aina hotz mantentzeko  
poltsak dauzkagu



Ezkontzetan  
banatzeko opariak  
prestatzen ditugu



Gaurko  
eskaintza



Hegaluzea  
xx / kg

28/2005 Legea betez,  
Hemen EZIN DA erre



kerik  
gabeko gunea

28/2005 Legea betez,  
Hemen ERRE DAITEKE



BAI  
erretzeko gunea

SMS lehiaketa antolatu zuten. Hizkuntzarekin jolas egiteko aukera bat izan da, baina kontua ez da hizkuntza berria asmatzea, gurearekin jolasean hitz, esamolde, argot berriak sortzea baizik. Izan ere, hizkuntza berriz asmatzea eta berriz eratzea gure eskubidea baita. Aurten bidarren edizioa egin da, eta parte hartzea oso handia izan da. Leizako gazte dexentek ere parte hartu du lehiaketan. Lehiaketaren euskarri nagusia [www.smsariketa.org](http://www.smsariketa.org) webgunea izan da aurten ere. Baina iaz “gehien maite duzun horri” idatzi zieten guztiek aurten ezezkoak esateko duten abilezia erakutsi beharko dute. Izan ere,

“esaiozu ezetz” izan da aurten SMSak idazteko gaia.

- **Osasun Zerbitzuak euskaldun-tzeko kanpaina** Osasungintzan ere euskaldunon hizkuntza eskubideen defentsa eta aldarrikapena egitea izan zen asmoa. Kexa asko bideratu ziren.

- **Merkataritza kanpaina.** Era guztietako kartzelak egiten dituzte: oharrak, ordutegia, menuak...euskaratu, zabalik/itxita txartelak banatu...

- **Arlo bakoitzetako hiztegi plastifikatuak.** Auten hainbat hiztegi egin dituzte: harategiak, ileapaindegia eta txokoak.



# EUSKARAZ LAN EGIN ETA BIZITZEKO informazio lagungarria

**E**uskaraz lan egin eta funtzionatzen dugunean, arrazoi ugari dela medio, zalantza eta galdera asko sortzen zaizkigu, eta batzuetan ez dakigu nora jo. Orri honen bitartez, egunero euskaraz lan egin eta aritzeko lagungarri izan daitezkeeen zenbait erreferentzia eman nahi dizkizuegu, zuen lana erraztu eta lagunduko dutelakoan. Zerrendan baliabide ugari aurkituko dituzue: hiztegiak, inprimakiak, zerbitzuak..., denak erabilgarri.

Orrialdeotan, euskararekin modu bateko edo besteko harremana duten taldeak, erakundeak, elkarteak, aldizkariak... bildu ditugu, eta hauengana jotzeko edo hauek eskaintzen duten informazioa edo bitartekoak erabiltzeko erreferentziak eman ditugu: telefono zenbakiak, e-mail-ak, web-orriak edo bestelakoak. Ez ditugu, jakina, diren guztiak bildu, baina hemen jaso ditugunekin abiapuntu polita izanen duzuela uste dugu.

Izan ere, erreferentzia bat hautatu eta hortik ibiltzen hasita, loturaz

lotura, euskararen eta euskalgintzan barrena ibilbide luze eta aberatsa egin daiteke.

Denetik aurkituko duzu bertan; gure eskualdeko erakunde, talde eta elkarteetatik hasita, Euskal Herri osoa lan-eremutat hartzen duten erakundeetaraino.

## ERAKUNDE NAGUSIAK

- **Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Euskara Zerbitzuko itzulpen zerbitzua:** enpresa, elkarte, talde eta erakundeentzako itzulpenak egiten ditu, doan, baita euskararen inguruko aholkularitza eman ere. Telefono zenbakia: 948 510814. Helbide elektronikoa: leitzaldea@euskalnet.net.
- **www.uema.org.** Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko web-orrian baliabide interesgarriak daude. Alde batetik, "euskaraz baliabideak" atalean hainbat hiztegi

daude, eta bestelako laguntza eta kontsulta-tresnak; bestetik, "profesional euskaldunak" atalean, hainbat lanbide eta jarduketako profesional euskaldunen zerrenda ikus daiteke.

- **www.kontseilua.org.** Euskararen inguruko hainbat baliabide berri aurki dezakegu bertan: terminologia zerbitzuak, normalkuntza planetarako enpresak, itzulpen zerbitzuak, zerbitzu profesionalak, euskarazko softwarea, informatika-enpresak, inprimakiak..Euskararen inguruan interesa duenak badauka gaur egun nora jo, zalantzarik gabe. Gure hizkuntzaren gaineko informazioa gero eta zabalagoa da, eta hamaika alderditatik azter dezakegu: datu soziolinguistikoak, hitz edo esaera zaharrak, gure eskualdeko euskararen aldeko erakundeak, euskaltegiak, erakunde publikoak, kontsultak, euskararen histo-

ria... Euskararekiko edo euskalgintzarekiko interesa izateko arrazoi ugari daude, gai honetara hurbiltzeko moduak adina, gutxienez.



# EUSKARAZ!!!

## AGIRIAK, INPRIMAKIAK, DOKUMENTUAK

- **www.agiriak.net.** Euskarazko hainbat agiriren ereduak daude. Bertatik inprimatzeko aukera ere ematen du. Horietako asko doan eskuratu daitezke, beste batzuk ordaindu egin behar dira.
- **Lan-kontratuak.** INEMen kontratu eredu guztiak euskaratuta daude, eta [www.erabili.com](http://www.erabili.com) helbidean aurki daitezke, "lantresnak" atalean.
- **TCak.** Gizarte Segurantzako bulegoetan badituzte euskarazko TC agiriak.

## ZERBITZUAK

- **www.artez.net.** Euskal papergintzako produktuak ("denda" atalean), eta hizkuntza normalizatzeko zerbitzuak (itzulpenak, agiriak...)

## INFORMATIKA ZERBITZUAK

- **CEDATEC** (Tel.94-4396197). Nominak euskaraz egiteko programak saltzen dituzte.
- **Zuhar** (Tel. 94- 4792867). Web-orriak, fakturazioko programak, nominak egiteko programak eta datu-baseak egiten dituzte.
- **Plazagunea** (Tel. 943-590443). Web-orriak egiten dituzte.
- **Cyberleku** (Tel. 943-815976/ 699848132). Web-orriak egiten dituzte.
- **Servicios Informáticos Kifer S.L.** (Tel. 943-366060). Euskarazko programak egiten dituzte.

## TALDE, ELKARTE ETA ERAKUNDEAK

- **Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Euskara Zerbitzua**  
948 510814  
[leitzaldea@euskalnet.net](mailto:leitzaldea@euskalnet.net)
- **Leitzaldeko IKA Euskaltegia**  
948 610776  
[ikaleitza@terra.es](mailto:ikaleitza@terra.es)
- **Karrape Irratia**  
948 610914
- **Ttipi-Ttapa aldizkaria**  
948 631188  
[Ttipi-ttapa@topagunea.com](mailto:Ttipi-ttapa@topagunea.com)  
[www.topagunea.com](http://www.topagunea.com)
- **Marmari eta Xapo aldizkariak**  
948 510814  
[leitzaldea@euskalnet.net](mailto:leitzaldea@euskalnet.net)

- **Goizuetako Kultur Taldea**  
948 514002  
948 514006
- **Leitzako Kultur Taldea**  
948 510045
- **Aresoko Kultur Taldea**  
948 397053
- **Leitzako Euskara Batzordea**  
948 510814  
[leitzaldea@euskalnet.net](mailto:leitzaldea@euskalnet.net)
- **UEMA**  
94 6279196  
943 260372  
[iarregi@uema.org](mailto:iarregi@uema.org)  
[gipuzkoa1@uema.org](mailto:gipuzkoa1@uema.org)  
[www.uema.org](http://www.uema.org)
- **Hizkuntz Eskubideen Behatokia**  
948 146172  
[behatokia@behatokia.org](mailto:behatokia@behatokia.org)  
[www.behatokia.org](http://www.behatokia.org)
- **Euskararen telefonoa**  
902 194332  
[behatokia@behatokia.org](mailto:behatokia@behatokia.org)
- **Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua**  
943 591200  
[Kontseilua@kontseilua.org](mailto:Kontseilua@kontseilua.org)  
[www.kontseilua.org](http://www.kontseilua.org)
- **SEI**  
943 592556  
[sei@sortu.org](mailto:sei@sortu.org)  
[www.sortu.org](http://www.sortu.org)



# EUSKARAZ



- **EHE**  
670 453670  
ehen@euskalnet.net  
www.ehe.euskalerria.org
- **AEK**  
948 220213  
nafarroa@aeknet.net
- **IKA**  
948 222246  
Ika\_campion@teleline.es
- **Sortzen-ikasbatuaz**  
948 221380  
sortzen@arrakis.es
- **OINARRIAK**  
948 220213
- **Euskaltzaindia**  
948 223471  
nafordez@euskaltzaindia.net  
www.euskaltzaindia.net
- **Udako Euskal Unibertsitatea**  
948 362563  
nafarroa@ueu.org  
www.ueu.org
- **Bertsolarien elkartea**  
948 228232  
bertsonafar@eresmas.com
- **Lanku. Bertsozale elkarteko zerbitzua**  
943 314031  
lanku@euskalnet.net

- **Euskal Kantuzaleen elkartea**  
kantuzale@euskalnet.net
- **Euskararen inguruko informazioa**  
www.euskadi.net/euskara/  
indice\_e.htm
- **EIZIE (itzultzaileen elkartea)**  
943 277111  
bulegoa@eizie.org  
www.eizie.org

## HIZTEGIAK ETA HIZKUNTZA BALIABIDEAK

---

- **Elhuyar hiztegia**  
www.uema.org  
(euskara baliabideak atala)
- **3000 Hiztegia**  
www.uema.org  
(euskara baliabideak atala)
- **Hiztegi batua**  
www.uema.org  
(euskara baliabideak atala)
- **Sinonimoen hiztegia**  
www.uema.org  
(euskara baliabideak atala)
- **Euskalterm**  
www.uema.org  
(euskara baliabideak atala)
- **Zientzia hiztegia**  
www.zientzia.net/hiztegia
- **Sukaldaritza hiztegia**  
www.bagera.net/Bageranet/Zibe  
rteka/Gastronomia
- **Arlokako hiztegiak**  
www.uema.org  
(euskara baliabideak atala)

- **Zalantzak argitzen**  
www.uema.org  
(euskara baliabideak atala)
- **Euskaltzaindiaren arauak**  
www.uema.org  
(euskara baliabideak atala)
- **Atsotitzak**  
www.uema.org  
(euskara baliabideak atala)
- **Euskal Herriko udalak eta kaleak**  
www.uema.org  
(euskara baliabideak atala)
- **Zuzentzaile ortografikoa**  
www.ix.a.si.ehu.es/tresnak/euspe  
ll.html
- **UZEI**  
www.uzei.com

## EUSKARA ETA KULTURAREN INGURUKO BILATZAILE OROKORRAK

---

- **Euskararen ataria**  
www.euskara.org
- **Aurki**  
www.aurki.com
- **Erabili**  
www.erabili.com
- **Jalgi**  
www.jalgi.com
- **Sustatu**  
www.sustatu.com
- **Argia**  
www.argia.com
- **Euskalerrria**  
www.euskalerrria.org



# KOADRILEN gorabeherak

**N**erabe gehientzat koadrila hitzak bi esanahi ditu: dibertsioa eta babes. Koadrilek nerabeei talde batean edo leku baten barneratuta sentiaraztea ahalbidetzen die, gizartea eta familiaz kanpoko talde batean. Esan bezala familiaz kanpoko taldea sortzen da, koadrila, eta honek gazteari babes ematen dio bere garapen garaian. Talde honetan familian ez zeukan beste paper edo "rol" bat hartzen du, koadrilarekin identifikatu egiten da eta familia uzteko nahia erakusten du, baina aita eta amaren ardurak hor jarraitzen duelarik.

Orain helduak diren hainbat pertsoneri egindako inkestetan, gizonetzko 7 koadriletan eta emakumezkoan beste 8 koadriletan hainbat datu eta gomendio atera ditugu. Hasteko, gizonen eta emakumeen koadrilen arteko desberdintasun bat komentatu beharko litzateke, emakumeen koadrilak jendetsuagoak izaten zirela gizonen aldean. Hau esa n ostean koadrila hauen denbora-pasak eta hitz egiteko gaiak; gizonetzkoen koadriletan gehienbat, eguneroko gaietaz, aktualitatateko gaietaz, nesketaz eta kirol munduaz hitz egiten zutela ikusten da. Neskek, berriz, mutilen inguruan eta bakoitzaren

arazoez gehiago hitz egiten zuten, honekin elkartasun gehiago zegoela ikus daiteke.

Bestalde, koadriletan badaude gauza onak eta txarrak. Onen artean elkarrenganako errespetua, laguntasuna, konfiantza etab. daude. Txarren edo izorratzen dutenen artean berriz, liskarrak, inbidiak, harrotasunak, gaizki ulertuetatik sortutako haserreak etab. azpimarratzen zituzten.

Haserreei dagokienez, emakumeen artean sortutako liskarrak denbora gehiago behar izaten zuten baretzeko, gehienbat arazo gogorrakoak zirelako. Gizonenak berriz ez ziren, gehienetan, hain gogorak eta ez zen denbora askorik behar hauek baretzeko.





Izorratzen duten gauza horien artean beste arazo handi bat sar daiteke. Arazo hau gainera bi sexuetako koadriletan ematen zen, diruaren arazoa. Beti izan da arazo hau eta beti izanen da. Lan asko egiten da lortzeko baina ondoren segituan gastatzen da.

Juerga ez da oraingo gauza soilik eta honi buruz ere galdetu zitzaien, beraien lehenengo juergak, ligatzen zenbat urterekin hasi

ziren etab. Gizonen artean 15 urterekin hasi zirela zioten gehienek eta ligatzen beranduxeago. Emakumeen artean berriz, beranduxeago hasi ziren juergak egiten 16-17-18 urterekin baina esan behar da juerga egiten eta ligatzen batera hasi zirela diotela.

Koadrila puskatzeko garaia bikotea aurkitu eta ezkontzerakoan izan zela ikus daiteke. Gizonezkoek honen aurretik, gehienetan, soldaduska egina izaten zuten baina ez zuen batere eraginik izan, berdin jarraitu baitzuten. Koadrila hauek puskatuta daudela kontuan

hartuta ea zenbatetan elkartzen diren galderaren erantzunak ez

dira berdinak izan: gizonezkoak dezentetan elkartzen baitira lehenengo koadrilakoekin eta emakumezkoak berriz, gutxiagotan. Hala ere esan behar da bi sexuen aldetik asko botatzen direla faltan lehenengo juergak eta konprensibitatea.

Bukatzeko oraingo gazte koadrilei hainbat aholku eman zizikieten: droga munduarekin kontuz ibiltzea, hika berreskuratzea, gazetetasuna disfrutatzea, engainatuak ez egotea, ikasketei garrantzia ematea, laguntasun eta konprensioz jokatzeko eta azkenik arazoetan ez sartzea.

**Egileak: Joanes Ceballos, Mikel Iriarte eta Joseba Lazkano.**




# Internet

Jakina da, gaur egun, interneteko ibilera guztiak zein mezu guztiak kontrola daitezkeela. Hau ikusita, zer egin dezakegu gure Emailak guk nahi dugun pertsonak bakarrik jasotzea nahi badugu? Honen irtenbidea enkriptatzeko programetan aurkituko dugu. PGP da hauetako bat.

PGP delako programa honen bitartez, gure mezuek enkriptatu eta guk nahi dugun pertsonak bakarrik deskodifikatu eta irakurri ahal izatea lor dezakegu. Diotenez, ez omen du inork lortu hauetako mezurik tranpen bidez desenkriptatzea, beraz, nahiko segurua dela ziurta dezakegu. Adibidez, "Kaixo, zer moduz?" esaldia horrela geratuko litzateke: "DXCf9 Yo/yfggER\$"

Baina nola erabiltzen da programa hau? Honakoa da jarraitzen den prozesua: Programa hau daukan pertsona bakoitzak bi pasahitz dauzka, bata, publikoa eta bestea, pribatua. Pasahitz publikoa edonori eman diezaikegu, kasu honetan, mezua guri bidaliko digun pertsonari. Baina, pasahitz pribatua norberak besterik ez du jakin behar. Beraz, mezua bidali nahi duenak (igorleak), hartzailearen pasahitz publikoaren bidez enkriptatzen du mezua. Honela, mezu hau hartzaile honen pasahitz probatuarekin bakarrik desenkriptatu ahal litzateke. Hau horrela, norberaren pasahitz probatua ongi gordez gero, ez dago arazorik, eta beraz, nahi duguna idatz dezakegu hirugarren pertsona batek irakurri ahal izan gabe!





# Matrixen bizi al gara?


**M**artin Rees eta John Barrow-en, astrofisikari eta matematikarien ustez, posible izanen litzateke hau eta hori erakusteko teoria berri bat asmatu, zuten unibertsoaren jatorria aztertzeko. Lan horretan megasuperkonputagailu batek sortutako unibertso asmatuan biziko ginatke.

Ideia hauek guztiak matrix pelikulatik ateratakoak ematen dute, baina, Paul Davies bezalako fisikarien babesa dute. Honetaz gainera, Paul Davies-ek proba garrantzitsuak eman zituen hau egiaztatu zezaketenak. John Webb-en aurkikuntza bat erabili zuen proba moduan: Webb-ek 6 mila milioi kilometrotara kokatuak zeuden Quasareak aztertzean egin zuen aurkikuntza. Hauek Einsteinen erlatibitatearen legearen arabera izan behar zuten abiadurarena baina, pixkat txikiagoa zeukatela ohartu zen. Honi kasu eginik, Davies-entzat unibertso simulatua ez zen oso tara perfektua izanen eta konstante fisikoen aldakuntzen bidez agertuko zen.

Ideia hauek ere zenbait filosofok hartu dituzte, Nick Bostrom-ek adibidez eta bere, unibertso simulatu batean bizi al gara?, liburuan oinarrizko bí printzipio ezarri zituen hipotesi honi lotuta:

1. Gure espezieak, daukan aurrerapenarekin, teknologikoki oso aurreratua izan arte ez desagertzearen probabilitatea oso txikia da.
2. Zu ia seguru simulazio batean bizi zara.

Bukaeran, Bostrom-ek hau galdetzen dio bere buruari: “Simulazio batean baldin bagaude, jakin al dezakegu seguru? Simulaztaileek ez baldin badute nahí, seguruenaz ez dugu inoiz jakinen”. Baina beraien buruaerakustea aukeratzeko badute, jakin genezake. Zerk erakutsiko liguke simulazio batean biziko gine-la? bada filosofo honen ustez, guk noizbait símulazio-ren bat sortuko bagenu, orduan jakinen genuke gu simulazio batean bizi garen ala ez, orduan jakinen baikenuke nola funtzionatzen duten simulaztaileek.



# IMMIGRAZIOA eta euskara



**XX.** mendean Euskal Herrira etorritako etorkin kopuru handiak nabarmen eraldatu zuen bertako egitura sozial, politiko eta kulturala. Oraindik ere ematen den aurreko immigrazio horri gehitu behar zaio 80ko hamarkadatik aurrera Europa barrutik eta kanpotik etorritakoa. Hala ere, ez dugu ahaztu behar oraindik ere etorkin kopuru handiena Espainiako eta Frantziako estatutik datozela, hala ez badi-rudi ere. Pateren bidez Kanarietako kostetara egoera tamalgarrian iristen diren etorkinen berri izaten dugu gehienbat, gehienak hegazkin bidez etortzen badira ere, baina noski kasu horietan ez da hasiera batean behintzat beste kasuetan sortzen den egoera tamalgarria gertatzen: hildakoak, atxi-

loketak, gainezka dauden errefugioak, eta abar. Eta berri txarrekin beti izaten dute oihartzun handiagoa.

Euskal Herrira etorritako etorkin gehienak, ezagunen bidez etorritakoak dira. Bertan dauden etorkinek, jaioterri berekoak direnak sare sozial bat sortzen dute, eta orokorrean Euskal Herrira edota Espainiako estatura datozen etorkinek badute bertan ezagunen bat edo familiako norbait. Oro har, horren arabera aukeratzen dute xede herria edo eskualdea.

Gaur egun Euskal Herrian bizi diren 3 milio lagun ingurutik % 25 baino gehiago immigranteak dira. Horietako gehienak Espainiako eta Frantziako estatutik etorritakoak dira. Gainerakoak % 5,51 Hego Amerikako dira, eta

talde honen barruan gehienbat Kolonbiakoak eta Ekuadorrekoak. Horien ondotik Marokokoek eta Portugalekoek osatzen duten kopuru handieneko taldeak. Espainiako estatutik etorritakoak % 19 dira. Horietatik gehienak bai Nafarroan nahiz Euskal Herrian gehie- goak Gaztela eta Leongo komunitate-koak dira, eta jarraiki Extremadura, Galizia eta Andaluzia.

Euskal Herrian bertan jaitakoak % 50 dira. % 25k guraso etorkinak dituzte, eta % 25 etorkinak dira. Nafarroan berriz, % 69 bertan jaioa da, % 13k gurasoak etorkinak ditu eta % 18 etorkina da (Espainiako eta Frantziako estatuetako etorkinak barne). Euskal Herriko probintziaketatik bertako populazio kopuru handiena Zuberoan



dago, %72 bertakoa da. Leitzan hoan-ko hauek dira etorkinen inguruko datuak:


- a. Europar Batasunekoak % 25,96, eta horietatik % 85 Portugalekoak.
- b. Errumaniakoak % 15,40.
- c. Hego Amerika % 40,40, eta horietatik 73,80 Ekuadorrekoak dira.
- d. Magreb (Argelia, Maroko...) % 18,24.

Badira batzuk Leitzan erroldatuak daudenak, baina ez direnak Leitzan bizi. Bateonbat ere badago erroldatu ez dena. Erroldatzeko helbide bat izatea eskatzen zaie, alokatua izanez gero jabearen baimena edo ziurtagiria. Bestalde, jatorrizko herrialdearen arabera-ko identitate agiria: bisatua, europako identitate txartela...

Etorkinen seme-alaben eskolatzeari dagokionez, ez dute joera orokorra jarraitu. EAEn D eredu da nagusi bertako herritarrena artean, A eta B eredu berriz etorkinen artean. Etorkinan seme-alaben %51,8 A eredu daude, %27,8 B eredu eta %20,4 D eredu. Araban % 75 A eredu, Bizkaian %55 A eredu eta Gipuzkoan % 45 A eredu. Nafarroako Gobernuak ez du erduei buruzko daturik ematen.

Leitzaldean etorkinen hurrei dagokionez, gehienak D eredu izena eman dute, bat edo beste izan ezik. Nafarroako Gobernuak Irurtzunen A eredu izena emateko erraztasunak ematen dizkie. Orokorrean euskararekiko eta bertako ohitura eta kulturarekiko begirune handia erakusten dute. Leitzaldean euskara ikasten ari den etorkin talde bat badago, eta Goizuetan beste bat. Esfortzu handia ari dira egiten. Euskara ez jakitea integraziorako eta aukera berdintasunerako beste oztopo izan daiteke, baina hori asko aldatzen da bizilekuaren ezaugarrien arabera. Hiri handietan euskarak ez du indar handirik, hiri handietan dago etorkin kopuru han-

diena, eta metropoli kanpoko eremuetan pilatzen dira gehienbat.



Leitzan etorkinak eskolatutakoen %8 dira. Araban %4,7, Bizkaian % 3,7, Gipuzkoan %2,7 eta Nafarroan %8,7. Zenbait ikastetxetan ghetizazioa ematen ari da, A eredu etorkinak nagusi egiten ari dira.

Helduei dagokionez, etorkinek euskara ikasi ez dezaten arrazoi asko daude baldintza sozioekonomikoak direla eta. Haien egoera oso ezegonkorra da jasaten dituzten baldintza sozioekonomikoak direla. Bestetik, askok itzultzeko asmoa dute, eta beraz, integrazioa ez da lehentasunezko kontua. Baina badira ere euskara ikasteko hainbat arrazoi. Hemengo hizkuntza da, berezkoa. Komunitatearen parte batek (hemen tokian tokiko proportzioa jarri) hizkuntza hori ezagutzen eta erabiltzen du. Antzinekoa da, eta hori jakinda soilik ulertzen ahal da hemengo jendearen izana. Beraz, euskara ezagutzea tokian tokiko gizartean integratzeko zuzeneko bidea da. Lanpostu bat lortzeko lagungarria izan daite. Gainera, jendearengana hurbiltzea erraztuko luke. Bestalde, aipagarriak dira D eredu matrikula-

tuz gero, elaniztasunak dauzkan onurak:

- Komunikatzeko ahalmen handiago ematen die.
- Bi hizkuntzetan (edo gehiagotan) irakurri eta idazten ahalko dute.
- Eskolan errendimendu hobekoak aterako dituzte. (Hizkuntzek elkarri laguntzen baitiote).
- Erraztasun handiagoa izango dute, beste hizkuntzak ezagutzeko (ingelesa, adib.), motibazioak zabaltzen baitu bidea.
- Pentsamenduaren hainbat alorretan nabaria izango dute abantaila: sormena, malgutasuna, besteen tokian jartzeko ahalmena...
- Bi kultura ezagutuko dituzte, eta horiek besteekin partekatzeko aukera izango dute.
- Haien burua gehiago baloratuko dute, eta haien nortasuna hobe finkatuko.
- Errespetu eta onarpen zabalagoa erakutsiko dute, diferenteak direnekin.
- Lan mundurako abantailak emango dizkie.

Orain arte datuen inguruan hitz egiten aritu gara, baina zer da integrazioa? J. Berry autoreak horren inguruko sailkapen bat sortu zuen. Integrazioa helmuga herrialdearen kultur nortasuna eta ohiturak bereganatzean direnean, eta aldi berean jatorrizkoak gordetzen direnean ematen da. Orain arte gobernuen immigrazio politika asimizionalista izan da, hots, helmugako herrialdearen kultur nortasuna eta ohiturak inposatu zaizkie etorkinei eta jatorrizko kultur nortasuna alde batera uztea behartu zaie, legez ez bada ere.

#### KULTURIZAZIO EREDUAK J. BERRY

		Jatorrizko kultur nortasuna eta ohiturak gorde	
		BAI	EZ
Helmuga herrialdearen kultur nortasuna eta ohiturak bereganatu	BAI	Integrazioa	Asimilaizioa
	EZ	Segregazioa	Deskulturazioa

## Ur Algero • Integrazioarako teknikaria

***“Programa horren  
asmoa etorkinen  
integrazioa sustatzea da,  
beti ere, metodologia  
hezitzaile, partehartzaile  
eta demokratiko baten  
bidez”***







**U**r Algero integraziorako teknikaria berria da. Aresokoa da. Gizarte hezkuntza ikasketak egin ditu, eta egun pedagogia ikasten ari da. Erasmus beka baten bidez Finlandian ikasten aritu zen, beraz, badauki zer den hein batean behintzat, arrotza sentitzea, kultura desberdin bateko herrialde batean bizitzera ohitzeko egin behar den esfortzua.

### Noiz eta nola sortu zen immigrazio zerbitzua?

Aurtengo irailean sortu zen immigrazio zerbitzua, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren diru laguntza baten bidez. Gizarte Zerbitzuak diru laguntza jaso ahal izateko programa bat aurkeztu behar izan zuen. Programa horren asmoa etorkinen integrazioa sustatzea da, beti ere, metodologia hezitzaile, partehartzaile eta demokratiko baten bidez.

### Zein da bere egitur a eta zertarako sortu zen?

Immigrazio Zerbitzua Gizarte Zerbitzuaren barnean dago, beraz, lau herriri ematen die zerbitzua: Leitza, Goizueta, Areso eta Arano. Immigrazioaren aldetik gehienbat Leitza eta Goizuetan lan egin da, han baitago etorkin gehien. Esan bazala, jasotako datuetatik abiatuz programa bat osatu genuen. Programak honako helburuak ditu:

- Programa berearen kudeaketa eta etorkinari harrera egitea (alderdi legala, unean uneko arazo partikularrak...).
- Populazio etorkinaren identifikazioa egin eta errolatze datuak jaso, osatzeko. Datuak jasotzen dira batetik, kopurua egiaztatzeko, eta bestetik etorkinen ezaugarriak zehazteko. Datu horiek jakitea ezinbestekoa da programako jarduerak eta ekintzak zehazteko. Datu bilketan honako aldagaietan arreta berezia jarri da: sexua, adina, legezko egoera, egoera sozio-ekonomikoa, arraza eta jatorrizko herrialde/eremuak. Bestalde, etorkinek atzerriarako diren aldetik izan ditzazkeen arazo eta gabezien idendifikazioa egin da, eta baita etorkinen azpitaldeek izan ditzaketan arazoak. Esate baterako, etorkina eta emakumea izateak dakarrena aztertu, edota eskualdeko hizkuntza ofizialak hitz egiten dituzten ala ez, erlijio gaiengatik egon daitekeen bazterketa eta abar.

• Kultur komunitate desberdinen arteko elkarrekin-tza sustako duen eskuartze zabalagoa. Etorkinen taldeen arteko komunikazioa sustatuko da alde batetik, eta etorkinak eta gainontzeko herritarren artekoa bestetik.

**Zer zerbitzu eskaintzen duzue?**

Etorkinei informazioa ematen zaie eta beharrezko dituzten eremuetan laguntza eskaintzen zaie. Bereziki honako eremuetan ematen zaie zerbitzua:

### Zer zerbitzu eskaintzen duzue?

Etorkinei informazioa ematen zaie eta beharrezko dituzten eremuetan laguntza eskaintzen zaie. Bereziki honako eremuetan ematen zaie zerbitzua:

- a. Lan beharrak: lana bilatzen laguntzea, hori lehendik Gizarte Zerbitzuan dauden baliabideen bidez egiten dugu ( babesturiko enplegua). Bestalde, langileen eskubideen berri ematen zaie.
- b. Etorkinei dagokien legeari buruzko informazioa: paperak lortzeko jarraibideak.
- c. Hezkuntza: ikasketen konbidazioa, helduena eta haurrena, hizkuntza. Euskara ikasteko diru laguntza eman zaie. Gaztelania ikasteko talderik ez da sortu oraindik, baina badago hau sortzeko asmoa..

### Zer motatako jendea hurbiltzen da zuengana? Jaioterria, adina, sexua...

Gehienak emakumeak izaten dira, gizonak lanean ari baitira. Etortzen direnak zailtasun ekonomikoak izan ohi dituzte, baina gehienek lana dute. Arazo handiena etxebizitza lortzea da. Askok lan gogorrak dituzte: eraikuntza, baso lana e.a., gizonen kasuan eta

emakumeen kasuan etxe garbiketak, interinak, ostalaritza... Badira ere emakume batzuk fabriketan lan egiten dutenak.

### Nolakoa da etorkinen egoera Leitzaldean eta orokorrean Euskal Herrian, estatu espainolean...

Euskal Herrian leku gehiagotako etorkinak daude. Leitzaldean ondoko eremuko etorkinak daude:

- a. Europar Batasunekoak % 25,96, eta horietatik % 85 Portugalekoak.
- b. Errumaniakoak % 15,40.
- c. Hego Amerika % 40,40, eta horietatik 73,80 Ekuadorrekoak dira.
- d. Magreb (Argelia, Maroko...) % 18,24.

Badira batzuk Leitzan erroldatuak daudenak, baina ez direnak Leitzan bizi. Baten bat ere badago erroldatu ez dena. Erroldatzeko helbide bat izatea eskatzen zaie, pisua beraiena ez bada edo alokaturik ez badute jabearen baimena edo ziurtagiria ere izan behar da. Bestalde, jatorrizko herrialdearen arabera identitate agiria: atzeritarrentzako identifikazio zenbakia edota pasaporte zenbakia.

### Hemengo etorkinek zein jarrera dute bertako kulturarekiko: euskara, ohiturak... Parte hartzen al dute?

Etorkin kopuruaren arabera integrazio maila aldatu egiten da. Kopuru handia baldin bada, harreman sare zabala dute jada, propioa, eta beraz, beste herritarrekin harremantzeko beharra ez da hain handia. Taldea berriz, txikia baldin bada ez daukate hain aukera zabala. Beraz, integrazioa ematea zailago da jaioterri bereko

etorkin kopurua handia denean. Jaioterriaren arabera ere integrazio mailan aldaketak daude. Magrebeko jendeak familiarenganako gertutasun handiago du beste etorkin taldeen aldean. Familia sarea oso estua da.

Bertakoekin harremanetan sartzeko bide nagusia haurrak eta lana dira Leitzaldean. Haurrak dituzten emakume etorkinek badute bertako emakumeekin harremana; haurrek gela berean ikasten dutelako, erosketetan elkar ikusten direlako... Etorkinen haurrei dagokionez, gehiengo zabalak D eremuan ikasten du, bat edo beste izan ezik. Nafarroako Gobernuak Irurtzunen A eremuan izena emateko erraztasunak ematen dizkie hauei. Orokorrean euskararekiko eta bertako ohitura eta kulturarekiko begirune handia erakusten dute. Leitzaldean euskara ikasten ari den etorkin talde bat badago, eta Goizuetan beste bat. Esfortzu handia ari dira egiten.

Askok Leitzan geratzeko asmoa azaltzen dute. Asmo hori adierazten dutenak hemen ongi sentitzen dira, eta herriko jendearekin hartuemanak dituztenak dira; jarrera hobea dute jendearekiko eta euskararekiko. Gehienek ez zuten Euskal Herrira iritsi aurretik hemengo egoeraren berri, ez zekiten gaztelaniz gain beste hizkuntza bat zenik, ez zuten gure kultura ezagutzen. Baina Leitzara iritsi aurretik bazekiten nolakoa zen hemengo egoera, asko Iruneatik eta Irurtzundik heldu baitira.

### Eskualdeko etorkinek ba al dute elkarerik?

Asmoa hori bazen ere oraindik ez da elkarerik sortu, baina litekeena da aurrerago sortzea. Dena den ez dute

harreman handirik beste etorkinekin, bakoitza bere taldekoekin.

### Eskualdeko jendeak zer jarrera du etorkinekiko?

Eskualdeko jendeak orokorrean jarrera ona du etorkinekiko, baina aurreiritzi negatibo asko dituzte etorkinen inguruan hainbat alorretan.

### Zer konponbide ikusten duzue etorkinen afera konpontzeko?

Konponbidea bi mailatan eman beharko litzateke: batetik, jatorrizko herrialdeetako egoera hobetzea eta bestetik, gurera etortzen diren etorkinei integartzeko erraztasunak ematea. Integartzeko erraztasunak ez dira soilik ekonomikoak, eskubide sozialak bermatzea beharrezkoa da eta baita beren desberdintasunerako errespetua eta beren buruak azaltzeko bideak eskaintzea.

Orokorrean Espainiako Gobernuak laguntza sozialak murriztu egin ditu, beharrak hazi egin diren bitartean, eta horrek diru laguntz horiek jasotzen dituzten kolektiboen arteko lehia sortu du. Etorkinek bertakoek dituzten prestazio sozialak jasotzen dituzte, ez dute bereziki beraientzako sortutako diru laguntzarik.

### Zer da zuretzat etorkina izatea?

Programari dagokionez, etorkina espainiarrak ez diren guztiak dira. Nire ustez etorkina da Euskal Herrikan kanpo etorritako edonor, kultura desberdin batetik datorrelako.

### Inork zuregana jo nahi baldin badu, zein da zerbitzuaren ordutegia?

Orgutegia malgua da. Astearteetan, ostegunetan eta ostiraletan 9:00etatik 13:00etara. Astelehenetan eta asteazkenetan ez dut ordutegi finkorik. Dena den, komenigarria da aurretik hitzordua eskatzea. Horretarako, telefono zenbaki honetara deitu behar da: 948 510 840.

***“Etortzen direnak zailtasun ekonomikoak izan ohi dituzte, baina gehienek lana dute”***



# Ezetz asmatu



Festa giroan daude gehienak, lehen festetan jendeak asko dantzaten zuen eta musika zen festen ardatza, hala ere mozkokarrak eta ere baziren gaur egun bezala, kontua ongi pasatzea da. Argazkietan agertzen direnak nor diren asmatu egin behar da. Ez zaigu iruditzen lan zailegia jarri dugunik. Hain aspaldikoak ere ez dira argazkiak eta. Tira, ea lan handiegirik gabe aurpegiok ezagutzen dituzuen.



## Pertsonai ezkutua

Pistak behar dituzula? Zertarako? Arreta pixka bat jartzea besterik ez da behar. Pertsona gaztea da. Hori gutxienez aurreratu-ko dizugu. Neska edo mutila izan daiteke. Hori ere, zure lagungarri. Argazkia manipulatu dago. Badaezpada esaten dizugu, agian ez zarelako ohartu. Ez da inoiz Marmari aldizkari-ko atal honetan atera.

Gehiago? Ez, noski. Hainbesteko laguntza emanda ez baduzu asmatu, alferrik ari zara, ez duzu asmatuko-eta. Laguntza eskatu ondokori eta aitortu ezazu zu baina trebeagoa dela.





# Bai Euskarari egitasmoak aurrera doa Euskal Herrian

**H**iru urte igaro dira jada Leitzaldean Bai Euskarari Akordioa abian jarri zenetik eta jada ikus ditzakegu eman dituen fruituak. Aurten Leitzaldeko 79 saltoki, enpresa eta bestelako entitatek eskuratu dute Bai Euskarari Ziurtagiria. Horietatik 58, Leiza eta Aresokoak dira eta gainerako 21ak, Goizueta eta Aranokoak hain zuzen.

Kontseiluak, UEMAK eta Iparraldeko Mankomunitateak Leitzan euskararen alde lankidetzan aritzeko asmoa azaldu zuten. Aipatutako hiru erakundeek Bai Euskarari Ziurtagiria elkarrekin sustatzeko konpromi-

soa hartu dute eta lankidetzaren aurkezpena egin zuten. Bestalde, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearen eta Kontseiluren arteko hitzarmena sinatzeko ekitaldi publikoa egin zen. Aurten ere Kontseilua eta Mankomunitatea elkarlanena arituko gara BAI EUSKARARI egitasmoa garatzeko.

Duela 6 urte sortu zen Bai Euskarari Ziurtagiria eta dagoeneko, Euskal Herri osoko 1350 entitatek eskuratu dute. Gero eta herri gehiagok hartzen dute parte proiektu honetan eta honen adibide garbia da Leitzaldean sinatutako hitzarmena.

BAI EUSKARARI egitasmoa oso hedatuta dago. Herri askotan hainbat ekimen egiten dira. Hemen dituzuen batzuk, Kontseiluak sortu berri duen blog-etik hartuak dira. Oso erraza da kontsultatzea eta garrantzitsua guztion ekarpena. Anima zaitetz eta sartu blog-ean. Eman zure iritzia.

## **Kontseilua eta Zestoako Udalak elkarlanean**

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak eta Zestoako Udalak Bai Euskarari Ziurtagiria sustatzeko hitzarmena sinatu 4 urteko lanki-





## Bai Euskarari Ziurtagiria herrietan



Kontseiluak Bai Euskarari Ziurtagiriak banatu ditu herri hauetan:

detzaren ondorio gisa. Kontseiluak Urola bailaran dituen elkarlanak hedatzen ari dira. Zarautzen adibidez, iazko irailean sinatu zuten hitzarmena eta Azpeitian esaterako, euskalgintzarekin elkarlanean ari dira. Azkoitian berriz, Udalarekin eta euskalgintzarekin aurrelanak egin dira eta laster batean elkarlanean hastea espero dute. Albistea irakurtzeko, egin klik hemen: [www.kontseilua.org](http://www.kontseilua.org)

### Bai Euskarari Eguna Soraluzen

Soraluzeko euskalgintzak antolatuta, egun beteko jarduna izan duen Bai Euskarari Eguna ospatu zen pasa den larunbatean. Bai Euskarari Akordio eta Konpromiso Prozesuaren berri herritarren artean zabaldu nahi izan dute konpromisoak hartu dituzten eragileen eguneroko jardun euskalduna azaltze-

## Bai Euskarari Ziurtagiria

Bai Euskarari Ziurtagiriaren bidez enpresek, saltokiek eta entitateek euskararekiko konpromisoa adierazten diote gizarteari. Euskal Herri osoko 1000 erakundek daukate ziurtagiria: dendak, tabernak, enpresak, banketxeak, kirol taldeak, ikastetxeak...



Normalizazioan lehen urratsak egiten ari diren eta konpromiso eraginkorrak hartu dituztenentzat.



Konpromisoak hartu dituzten eta dagoeneko euskarazko zerbitzua ematen dutenentzat.



Dagoeneko euskarazko zerbitzua ematen eta euskaraz lan egiten dutenentzat.

1. Bai Euskarari Ziurtagiria-ren bidez entitateak bere konpromisoaren berri ematen dio gizarte osoari.
2. Euskara erabiltzeko gaitasuna izatea lehiakortasunerako giltzarrizko faktorea da.
3. Kontsumitzaileak badaki kontuan hartzen euskararekin konprometitzen direnak.

Bai Euskarari Ziurtagiria urtero eskuratzen da eta, horretarako, Kontseiluak jarraipena egingo dio erakunde bakoitzari. Era berean, konpromisoak betetzeko beharrezkoak diren zerbitzu eta laguntzen informazioa beraien esku jarriko du Kontseiluak. Gainera, ziurtagiria eskuratu duten erakundeen promozioa egiten du Kontseiluak.



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN  
KONTSEILUA

Zigor Etxeburua Urbizu  
Bai Euskarari Akordioa  
Herrietan egitasmoko  
arduraduna

KONTSEILUA  
Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain (Gipuzkoa)  
Tel: 943 303551 • Faxa: 943 593051  
zigor@kontseilua.org • www.kontseilua.org

ko toki bat eskainiz. Gainera, prozesuan parte hartzen ari diren eragileen lana aitortu nahi izan da herritarren aurrean. Plarentxiarren kontzientzian eragitea ere bilatu da ekimen honen bidez. Albistean sakontzeko, segidan duzue DVk argitaratutako albistea:

### Bai Euskarari Eguneko balantzea positiboa dela diote antolatzaileek

NEREA ISASTI/SORALUZE. DV.

Bai Euskarari Eguna ospatu zen pasa den larunbatean Soraluzean. Egun hau Euskal Jaien egitarauaren barne dago eta beste ekitaldi garrantzitsu baten ostean dator. Hara, ostiral gaueko Benito Lertxundiren kontzertu arrakastatsua. Soraluzeako polikiroldegia bete egin zen, bai soraluzetarrez bai inguruko herrietako jendez. Zapatuan, bestalde, egun osoko egitaraua egon zen, ekitaldiz beteta.

Goizez, mendi irteera, pelota partiduak, jolasak eta Euskararen Aldeko Manifestuaren irakurketa izan ziren nagusi. Eguerdian, berriz, gisatu txapelketa eta kantu bazkaria. Bazkarian ehun lagun inguru bildu ziren. Azkenik, arratsalde, sagardo dastaketa eta Tapia eta Leturiaren erromeriak amaiera eman zioten Bai Euskarari Egunari. Antolatzaileek, Euskal Jai Batzordeak hain zuzen, balorazio positiboa egin du egun honetaz. Partehartzaile kopuru polita eta giro ederra, gutzia eguraldi izugarriarekin.





Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa ekitaldia 2006 Leitza

**Guztira 1.300 ziurtagiritik gora banatu dira dagoeneko,  
horietatik 57 Areson eta Leitza**

#### **IRAKASKUNTZA eta FORMAZIOA**

Amazabal BHI  
Aresoko eskola  
Erleta Haur eta Lehen  
Hezkuntzako Ikastetxe  
Publikoa  
Haur eskola  
Leitzako euskaltegia  
Maddalen Lazkano

#### **MERKATARITZA**

Biok jantziak  
Dia supermerkatua-  
Xumutxo, S.L.  
Erbiti farmazia  
Garziarena arrandegia  
Kapritxo  
Lizarraga harategia  
M. Plaza Tuñon farmazia  
Perurena harategia  
Urkiola harategia  
Zortziko labetxea  
ALIPROX

#### **OSTALARITZA**

Sagasti jatetxea  
Arakindegia jatetxea  
Gaztañaga taberna  
Musunzar ostatua  
Peritza taberna  
Torrea taberna  
Aritzeta landetxea

#### **ELKARTEAK eta MUNDU ASOZIATIBOA**

Asketa abesbatza  
"Denok bat" guraso elkarte  
Amazabal guraso elkarte  
Aresoko guraso elkarte  
Larrea elkarte  
Usoa ehiztarien elkarte  
Etxetxuria  
Pake toki elkarte  
Areso kirol elkarte  
Aurrera kirol elkarte  
Guratz mendi elkarte  
Mendibil mendi taldea  
Kultur taldea Areso  
Kultur taldea Leitza  
Leitzako jubilatuen elkarte

Saharar herriarekin  
elkartasuna taldea

#### **ZERBITZUAK ETA ENPRESAK**

Karrape irratia  
Leitza asesoria S.L.  
Gerardo Arrupea Mapfre  
Gabriel Saralegi  
Ardotegia lenitz  
Etxe-tresnak S.L.  
Fisioetxea  
Gaztelu iturgintza  
Gorritz arkume eta gaztak  
Gorritz S.L.  
Leitza garajea  
Leiza mandriladora  
M.E. Latz  
Talotegia  
Zurlan zurgindegia  
José Larrañaga S.A  
Goiko lorezaintza



Udan ere

*Bai* euskarari



Udan ere Bai Euskarari! Sartu [www.baieuskarari.org](http://www.baieuskarari.org)  
webgunean eta ikusi zeintzuk diren Bai Euskarari  
Ziurtagiria duten ostatu, hotel, jatetxe eta saltokiak,  
eta kontuan har itzazu!

**Ez ahaztu, udan ere bai euskarari!**

# TXISTEAK

Ba al dakizu zein den donostiarren mixeria?

Urtean behin jotzen dutela, eta uste dute dela Sarriegi.

Pinotxo eta Edurne Zuri 69a egiten ari dira, eta halako batean esan dio neskak Pinotxori: “Hasi hadi gezurretan, arraioa!”

“Aitatxo, nolakoak dira mozkorrak?” “Begira, alabatxo, ikusten dituzu hango bi zuhaitz haiek? Ba mozkorrek lau ikusten dituzte bi dauden tokian”. “Baina, aitatxo, han zuhaitz bakarra dago eta”.

Ailegatu da gizaseme bat tabernara, harro samarra omen; taberna lepo, jendez bete; erdi-erdian jarri da, denei begiratu, eta lurrean marra bat margotu du. Eta denei esan die:

— Marratik ezkerretara zaudetenak nazkante hutsak zarete, eta marratik eskuinera zaudetenak, tontoak”. Bat altxatu egin da, eta.

— Hi, ni ez nauk nazkantea.

— Ba orduan tontoa haiz, eta jarri hadi beste aldean.

Gizon bat traktorean doa, lasai-lasai, eta halako batean atzetik motor bat etorri zaio, jo du traktorea eta hoge metro inguruan han doa hegan. Traktorekoa arrapaladan joan eta esan dio:

— Minik hartu al duzu, minik hartu al duzu?

Eta besteak:

— Hurrengoan atzean trapu gorri bat-edo jarri!

— Bai! Traktora ez duzu ikusi, eta trapu gorria ikusiko duzu zuk!

Zeruan pasa omen zen behin, zeruan ez, infernuan. Infernuan zera omen zegoen, Karl Marx, han omen zegoen. Infernuan ez omen zegoen bakerik. Eta deabruak eta denak:

— Marx honekin ez dago bakerik. Jesus, beti grebak direla, beti manisfetazioa, beti kexa, ño, honekin zerbait egin beharra zego.

— Hi, zerura eramango diagu.

— Zerura?

— Ikusiko diate horrekin.

Furgoneta hartu, benga, infernutik zerura, zeruko atean utzi. Zapla...

— Goazemak hemendik azkar, eskapada ederra egin diagu, dios.

Sei hilabete pasa omen dira eta

— Hi, gogoratzen al haiz - deabruak batak besteari- gogoratzen al haiz Marxekin? Zeruan ere ez duk giro egongo, Jesus! Joango al gaira galdetzera?

— Goazemak.

Furgoneta hartzen diate, eta berriz ere zeruan atean, eta San Migelek atea irekitzen du eta:

— Iepa, egunon!

— Egunon, zera, zer moduz bizi zarete hemen zeruan edo.

— Ondo, zer ba?

— Hemen ez al zen agertu Marx izeneko bat.

— Bai, eta?

— Ez al du manifestaziorik eta horrelakorik egin?


— Ez.

— Ondo, eta Jainkoak zer esaten du?

— Jainkoa? Jainkorik ez da existitzen, e!



# GURUTZEGRAMA



## GALDERAK:

1. Bizkaiako mendia, Busturialdean dagoena.
2. Odolkiak egiteko ezinbestekoa.
3. Beti loi edo zikin dabilena.
4. Etxean txoria badaukazu, holakorik ere baduzu.
5. Adoetsua, bipila, zangarra...
6. Alkohola duten edariak edaten dituzunean kexatu egiten da.
7. Erleek beti daude honen inguruan.
8. Babarrunak egiteko hau behar duzu.
9. Erleek egiten duten janaria.
10. Pozik zaudenean, \_\_\_\_\_ asko egiten duzu.

Erantzunak: 1. Garbola, 2. Odola, 3. Holpeztu, 4. Halaia, 5. Rusaia, 6. Gibela, 7. Lorea, 8. Lepikoa, 9. Eztia, 10. Barrea

## EROSKOPOA



**Aries:** hotza egiten du, baita euria ere. Uda oso luzea egin du, baina orain txamarra beharko duzu eta euritakoa erosi beharko duzu. Agian merkealdira arte itxoin beharko zenuke oporretarako pixka bat aurrezteko.



**Taurus:** oporretara joaten bazara, erne ibili! Hegazkina hartu behar balidin baduzu behintzat eskuko poltsan ez eraman likidorik, bestela, orduak egingo dituzu fakturatzen.



**Gemini:** kontuz ibili gidatzerakoan. Badakizu orain oso erraza dela puntuen sistema dela eta gidabaimenirik gabe geratzea. Eta zuk behar duzu.



**Cancer:** galdu dituzun gauza guztiak aurkitu nahi badituzu, etxeko txoko guztiak garbitu beharko dituzu. Ea zer aurkitzen duzun! Altxor bat? Ez, altxorra nirea da.



**Leo:** eskatu duzun guztia ekarriko dizu Olentzerok, baina horretarako aurretik lan pixka bat egin beharko duzu etxean, leihoak oso zikinak daude eta.



**Virgo:** gabonetako erosketak egitera joaten bazara, kontuz ibili. Oparitu ezazu euskaraz.



**Libra:** Lizarragako San Clemente festetara joaten bazara, neska-mutil atsegin bat ezagutuko duzu.



**Escorpius:** gabonetako oporretan ez jan turroi gehiegi, edan ezazu txanpain pixka bat eta opa egin urte berriarengatik.



**Sagitaris:** gabonak gertu daude eta etxea apaindu beharko duzu. Badakizu gorostia ezin dela jarri, plastikozko zuhaitza jarri.



**Capricornius:** erregetako gozopilean panpina egokituko zaizu beti bezala, eta heldudan urtean berriz gozopila erosi behar. Bestela, etzazu jan eta horrela, ez duzu berriz erosi behar izango.



**Aquarius:** zuri ura asko guztatzen zaizu, beraz, kontentu egonen zara euri asko egingo baitu nehetan.



**Piscis:** Aquariuma bisita etzazu, etxean sentituko zara. Ez gehiegi hurbidu marrazoengana, oso hortz zorrotzak dituzte eta.

# zer diozu?

## eta zuk,

### Teresa martinez



Azkenaldialdian immigrazioari buruz asko hitz egiten da. Zer pentsatzen duzu gai horren inguruan? Niretzako erronka erakar-garria, eta gizartearentzat ere bai. Alde batetik oso gauza onak dakartza: elkartasuna, esku-lana, haurra..., eta bestetik, zailtasunak plantetzen dizkigu: integrazioa, desberdintasunak onartzea, beldurrak eta aurreiritziak gainditzea...Baina niretzako erronkak erakargarriak dira.

Nafarroan etorkin asko ala gutxi daudela iruditzen al zaizu? Iruinean dexente daude, eta uste dut Erribera alderuntz asko daudela, hemen Leitza eta Nafarroa Iparraldean baino askoz gehiago.

Badazu harremanik etorkinen batekin? Bai. Nire alabaren eskolan asko daude, eta bateonbategin hitz egiten dut. Lagun bat ere egin nuen.

Zer da zuretzat etorkina izatea? Kanpotarra izatea, lan eta famili proiektu bat edukitzea, diru gutxi, gogo handia eta oso ausarta izatea, behar handia izatea.

Zu sentitu al zara inoiz arrotz lekuren batean? Behin. Badakit leku batean berria zaren denbora behar duzula lekukoa sentitze-ko, eta horrek ahaleginak eskatzen dituela ere nire aldetik: hizkuntza ikastea, ohiturak errespetatzea eta barneratzea, eta abar.

Nora immigartuko zenuke, eta nora ez? Momentu honetan ez nuke immigratzea nahi, baina izatekotan eta agian etorkitzunera-ko Donostiara joango nintzateke (nire herrira).

Euskara zuretzat zer da? Nire kulturaren eta identitaeren zati bat. Nire haurtzarora eta gaztarora gogoratzen dizkit, batzuetan, nire aldamenean, elkarbizitzarako arazoak ekarri dituenak ere.

Lurra berotzen ari dela esaten dute, zer uste duzu zuk? Bai. Erabat ados nago, eta estatuek ez badute neurrik hartzen kiskalduko gara. Uraren arazoa munduan ikaragarria da, besteak beste. Munduaren eta gizakien aurpegi beltza da gai hau, beste batzuen artean.

Nafarroan eguraldia asko aldatu dela uste al duzu? Orain dela gutxi bizi naizela Nafarroan, baina baietz uste dut. Lehen hotzagoa zela entzun dut askotan.

Negu honetan elurra egingo ote du? Ez ditut tenporak entzun, hala ere, arraroa da oraindik hotz handirik ez egitea. Nik eskiatzera joan nahi nuen zubian, baina ez naiz joango elur faltagatik, beraz, eguraldiak asko aldatu behrako elurra egiteko.

### Naiara Garcia

Azkenaldialdian immigrazioari buruz asko hitz egiten da. Zer pentsatzen duzu gai horren inguruan? Garai batean Europak probokatutako egoeraren ondorio zuzen bat dela, hor dagoen errealitate bat. Gure garaia eta immigrazioa erabat lotuta daude.

Nafarroan etorkin asko ala gutxi daudela iruditzen al zaizu? Nire ustez, dexente, batez ere Gipuzkoarekin konparatzen badugu, adibidez.

Badazu harremanik etorkinen batekin? Harreman esturik ez, baina etorkinekin lan egin dut, bizilagun etorkinak izan ditut...

Zer da zuretzat etorkina izatea? Etorkina izatea? Zure lagunak, familia, etxea...dena utzi eta erabat arrotza den leku batetara iristen den pertsona. Diru ezak baldintzatzen du bere egoera, eta etorkina hartzen duen gizarteak emangodion tratua.

Zu sentitu al zara inoiz arrotz lekuren batean? Bai, baina gerorrek sortu dugun klasismo honen arabera ni lehenengo mundukoa naiz eta zuria, beraz, haiek sentitu daitezkeen bezain arrotz, ez.

Nora immigartuko zenuke, eta nora ez? Mediterraneo inguruko edozein lekutara. Errusiara, berriz, ez nintzen joango, ezta Estatu Batuetara ere.

Euskara zuretzat zer da? Nire amak eman zidan hizkuntza, iragana eta orainaren artean dagoen lotura, ahoz aho transmititzen dena.

Lurra berotzen ari dela esaten dute, zer uste duzu zuk? Berotu ez, kizkaltzen ari da gure erruz. Lurra gero eta grisago dago, telebistan botatzen dituzten imajinek gero eta erresoluzio eta kolore biziagoak izan arren.

Nafarroan eguraldia asko aldatu dela uste al duzu? Ba zerbait bai, leku guztietan bezala. Halere komunikabideen hizkuntza ere ez dut konpartitzen, hauen ustez beti "ola de frío" edo "ola de calor" delakoen artean bizi baikara.

Negu honetan elurra egingo ote du? Ba ez dakit egingo duen, baina niri ikaragarri gustatzen zait, beraz, egin dezala.

